

# **RASFF TXOSTENA**

## **ALERTAK eta JAKINARAZPENAK PENTSUAK**

### **2022ko URTEKO TXOSTENA**


**Jakinarazpenen kategorizazioa  
Identifikatutako arriskuen jatorria  
Tartean dauden produktuak  
Tartean dauden lehengaiak**

## JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2022an zehar, lauhilekoetan kontsultatutako datuen arabera, animalien elikagaiei buruzko 233 jakinarazpen egin dira. Horietatik **39 alertak** izan dira (**% 17**), **40 informazio-jakinazpenak** (**% 72**) eta **28 mugan egin diren ukapenak** (**% 11**).



Hona hemen urtean zehar RASFF bitartez jasotako jakinarazpenen kopuruan izandako joera:



Jakinarazpenetako produktuen jatorrizko herrialdeei dagokienez, **hirugarren herrialdeak % 30 izan dira.**




## IDENTIFIKATUTAKO ARRISKUEN JATORRIA

2022an hautemandako arrisku gehienak **mikrobiologikoak izan dira (% 53)**. Ondoren **bestelakoak** hauteman dira, **hala nola gorputz arrotzak, etiketa okerrak, gehigarri kopuru altuak (% 16); baimendu gabeko gehigarriak/substantziak (% 8) eta mikotoxinak (% 6) daude.**




**Arrisku mikrobiologikoei dagokionez**, kasu gehienetan, **mikrobiologiaren presentziaren ondorio izan dira (123 jakinarazpen)**, eta horien artean, **salmonella nabarmentzen da (102 jakinarazpen)**. Salmonella hauteman den lehengaien artean, nabarmentzekoak dira **soja-, koltza- eta ekilore-produktuak, bai eta haragi-irinak ere.**




## TARTEAN DAUDEN PRODUKTU MOTAK

Produktuen arabera, **lehengaiak eragin dituzte jasotako jakinarazpenen % 66, etxeko animalientzako pentsuek % 24, loditzeko animalientzako pentsuek % 7 eta gehigarri eta aurre-nahasketek % 3.**




Jakinarazpenetan tartean dauden produktuen bilakabidea, lauhileko bakoitzeko:



## TARTEAN DAUDEN LEHENGAIK

Nabarmentzekoak dira, jakinarazpen gehien eragin dituzten lehengaien artean, **soja-produktuak (22)**, **koltza-produktuak (12)**, **ekilore-produktuak (14)**, **arrai-irina (9)** eta **txakurrentzako mastikagarriak (21)**.



## **AURREKO URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA**

---

2022an 233 jakinarazpen egon dira; 2021ean, aldiz, 237. Aurreko urtearekin alderatuta, 2022an honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Jakinazpenen jatorria egonkor mantentzen da; arriskua mikrobiologikoa izan zen (% 50 inguru).**
- **Hautemandako arriskuen ehunekoak antzekoak dira (mikrobiologia, metal astunak, mikotoxinak, etab.) 2021ekoekin alderatuta.**
- **Alerten jakinarazpenak % 2 igo dira eta muga egin diren ukapenak, berriz, % 4 jaitsi dira.**
- **Lehengaien arriskuen hautematea % 5 areagotu da; etxeko animalien pentsuen hautematea % 4 areagotu da eta hiltegiko animalientzako pentsuen hautematea % 5 jaitsi da.**
- **Jakinazpenetan jasotako lehengai nagusiak aurreko urtekoaren antzekoak dira: soja-, koltza- eta ekilore-produktuak, arrain-irina eta ekilorez egindako produktuak.**